

IV. FORO TEMATIKOA BILBO METROPOLITARRAREN LURRALDE PLAN PARTZIALAREN BERRIKUSPENEAN: LURRALDE-ANTOLAMENDURAKO PERSPEKTIBA BERRIAK: Lurralde inklusiboa, euskara eta osasuna

Data: 2017/02/14

Lekua: La Bolsa eraikina, Pilota kalea 10, 48013 Bilbo

Iraupena: 2 ordu eta erdi

Bertaratutakoen kopurua: 11

BFAren ordezkariak

Izena	Kargua
Ángel Anero Murga jn.	Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko zuzendari nagusia

Laguntza teknikoa

Izena	Enpresa
Ana Izquierdo Lejardi and.	Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental
Jon Aguirre Such jn.	Paisaje Transversal
Aida López Urbaneja and.	Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental
Elsa Ibarra Albizu and.	Paisaje Transversal

Aurkezpen instituzionala

Ana Izquierdo Lejardi and.

Saioa hasteko, Helena Ortiz de Lejarazu "generoarekin lotutako gaiei buruzko hizlaria" tamalez ez dagoela egiaztatu du, eta, horren ondoren, azken Foro Tematikoaren aurkezpenari ekin dio.

Azaldu du saio honekin **foro tematikoen ziklo bati amaiera emango zaiola**. Foro tematiko horiek **parte-hartzearekin lotutako prozesu zabalago baten barnean** daude; hain zuzen, Bilbo Metropolitarraren LPParen berrikuspenarekin lotutako prozesu batean. Adierazi du fase hau azaroan hasi zen parte-hartze prozesuaren hasiera dela; azarotik zenbait ekimen egin dira hainbat agenterekin. Azaldu du prozesuaren garapenari buruzko informazio gehiago badagoela webgunean, bai eta etorkizunean etorriko diren parte-hartzearen gaiarekin lotutako urrats berriei buruzko informazioa ere.

Gehitu du lehen fase hau "saio honekin amaitzen dena" **aurrerapen dokumentua baino lehenagoko pedagogia- eta sentsibilizazio-fase bat izan dela**. Laster egongo da eskuragarri informaziorako eta diagnostikorako dokumentua, etorriko diren parte-hartze faseetan eztabaidatzeko.

Jarraian, nabarmendu du foro tematikoak interes bereziko zenbait gai jorratzeko diseinatu direla, baina horrek ez duela esan nahi ez daudela arreta merezi duten beste zenbait gai. Halaber, adierazi du etorkizuneko deialdietan landuko direla gai horiek.

Aurreko foroak aipatu ditu. **Foro horietan paisaiari, mugikortasunari eta hiri birgaitzeari buruzko gaiak jorratu dira**. Foro horietan hainbat kezka interesgarri plazaratu ziren zenbait gairi buruzkoak, hala nola industria-paisaiei buruzkoak, itsasadarraren bi ertzak konektatuta egotearen beharrari buruzkoak eta gune degradatuak berreskuratzeko esku-hartzearen estrategien garrantziari buruzkoak. Azken saio honetan, modu transbertsal batean landu beharreko zenbait gai azaltzen eta biltzen dira; zehatzago esanda, osasunari, generoari eta euskarari buruzko gaiak.

Azkenik, azaldu du foro honen dinamika desberdina izango dela talde-lana egin den beste saioekin alderatuta, oraingoan, denbora gehiago utziko zaie hizlariari beren aurkezpenak egiteko, eta talde-lanaren ordezkari galdetara eta erantzunen txanda bat eta guztion arteko eztabaida bat egingo dira.

Ondoren, **hizlariak aurkeztu** ditu:

Patxi Cirarda jn., Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko langilea. Farmazian lizentziatua da, eta Osasun Publikoko masterra du. Patxi Bizkaiko Osasun Publikoaren Zuzendariordetzaren Osasunaren Prebentzio Unitateko arduraduna da. Eskarmentu handikoa da gaixotasunen prebentzioan, bai eta osasunaren sustapenean eta ingurumen-osasuneko gaietan ere, hala nola atmosferaren kutsaduraren gaietan.

Unai Fernández de Betoño jn., arkitekturan doktorea (UPV/EHU) eta unibertsitate horretako irakasle laguntzailea da hirigintzari eta lurralde-antolamenduari buruzko gaietan. Lurralde-antolamenduan hizkuntzari buruzko gaiak sartzeari dagokionez, Unai Fernández da EHUK udan

eskaintzen duen *Lurraldea eta hizkuntza: eragin linguistikoaren ebaluazioa* EHuren berezko graduondoko titularen arduraduna.

Adituen azalpenak

Patxi Cirarda jaunak, hasteko, bere ponentziaren gaia aipatu du. Ponentzia hori osasunaren eta lurralde-antolamenduaren arteko loturari buruzkoa da. Hitzaldiaren gai-zerrenda laburtu du honako puntu hauetan: nor gara Osasun Sailean?; osasuna; osasunaren determinatzaile sozialak; hirigintza-planifikazioaren eta osasunaren arteko lotura; osasunaren mesedekoak diren estrategiak; osasunarekin lotutako hirigintza-planifikazioko ekimenen azterketa; eta zenbait gako-galdera.

EAEko osasun-laguntzaren antolamenduan, bi erakunde handi daude. Bata **Osakidetza** da eta bestea, **Osasun Publikoko Saila**. Lehen norbanakoaren osasunaz arduratzen da eta bigarrena, berriz, sistema planifikatzeaz, erregulatzeaz eta finantzatzeaz arduratzen da. Halaber, herritar guztien osasun-beharrek balioesten ditu, osasun-politikak lehenesten ditu, sektore pribatuaren eta publikoaren bidez ematen dituen zerbitzuak erregulatzen ditu, osasungintzako langileen ezagutza sustatzen du eta ikuspegi publikotik heltzen dio osasunari.

Cirarda jaunak azaldu du osasuna 1948an modu unibertsalean definitu zen kontzeptua dela, OME eratu zenean hain zuzen. Hona hemen definizioa: osasuna pertsonaren ongizate fisiko, mental eta soziala da; gizaki gisa ditugun potentzialitate guztiak garatzea ahalbidetzen digun oinarritzko eskubidea da.

Jarraian, 4 minutuko bideo bat jarri du. Bideo horretan azaltzen da osasunaren kontzeptua buruko gai bat eta gai sozial bat ere badela, eta ez soilik fisikoa.

Bideoaren ondoren, bertaratutako batek galdetu dio ea ospitaleen kokapena zehaztea Osasun Publikoko Sailaren ardura den, eta Patxi baietz erantzun dio eta ponentziarekin jarraitu du.

Ondoren, **osasunaren determinatzaile sozialak** definitu ditu, hala nola "**pertsonak jaio, bizi, hazi eta harremanak izaten dituzten baldintzak**" zein diren; hau da, pertsonen bizitzak zer baldintzatan gertatzen diren eta baldintza horiek zer eragin duten haien bizitzan. Kontzeptu hori hobeto azaltzeko, *tipularen diagrama* aipatu du. Lehen plano batean, pertsonak eta haien adina, generoa eta jatorrizko faktoreak daude; hurrengo geruzan, gure jokabideak eta bizitza-estiloak eta -ohiturak daude; hurrengo geruzan, sare sozialak eta komunitarioak; gaineko geruzan, gure bizi- eta lan-baldintzak daude; eta, azken geruzan, bizi garen lekuko baldintza sozioekonomikoak eta ingurumenarekin lotutako baldintzak.

Segidan azaldu du **ekitatearen kontzeptuak berarekin dakarrela pertsona guztiek aukera berdinak izatea ahalik eta osasun-maila altuena lortzeko, arrazoi sozialen ondorioz desabantaila-egoera batean egon gabe.** Horrek esan nahi du osasun-baliabideen banaketak ez duela berdintasunezkoa izan behar, baizik eta bidezkoa; hau da, beharra duten pertsonak, hainbesteko beharra ez duten pertsonekin alderatuta, sarbidea izan behar dutela baliabide-kopuru handiago batera. Ekitatearen txanponaren beste aldea da osasunarekin lotutako desparekotasunen gaia; hau da, bidezkoak ez diren eta saihestu daitezkeen desparekotasun sistematikoak, izan generoagatik, adinagatik, klase sozialagatik, kulturagatik nahiz beste faktore batzuegatik.

Ekitateari dagokionez, azaldu du **errenta altuagoko eta hezkuntza hobeko pertsonen bizi-itxaropen altuagoa dutela** baldintza okerragoetan bizi diren pertsonen baino. Jaiotzean ematen den bizi-itxaropena azken hiru hamarkadetan mundu osoan (modu desberdinean bada ere) hazi egin den biztanleriaren osasun onaren adierazlea da. Hala ere, osasunaren determinatzaile sozialen garrantzia nabarmentzeko zenbait konparazio egin ditu zenbait hirietako auzoen arteko desberdintasunekin; adibidez, zenbait hiritan 16 urteko desberdintasuna dago bizi-itxaropenean.

2010eko **Marmot Txostena** aipatu du. Txosten horretan, **hiri-planifikazioaren, osasunaren eta desparekotasun sozialen arteko loturak aztertzen ditu** eta osasun publikoan eragin nabarmena duten zenbait elementu finkatzen ditu. Hauek dira elementu horiek: ingurumenaren kutsadura, garraioa eta mugikortasuna, naturaguneak eta gune publiko irekiak, elikadura, etxebizitza eta bazterketari aurre egiteko parte-hartze soziala. Era berean, aldagai sozial bat ere bazegoela ikusi zuten, eta ondorioztatu zuten auzo onenetako eta ingurumen-baldintza hobekuntza dituzten auzoetako herritarrek osasun hobea eta bizi-itxaropen altuagoa izaten dutela auzo behartsuagoetan baino.

Diagnosiaren ondoren, txostenak osasun publikoa hobetzeko egin behar diren lurralde-planifikazioko ekintzei buruzko lau jarraibide ematen ditu:

- Klima-aldaketa moteltzea
- Gune berdeen eta gune publikoen kalitatea hobetzea
- Etxebizitzaren efizientzia energetikoa hobetzea
- Herri eta hirietan elikagai freskoen eskuragarritasuna hobetzea

Horrez gain, gaineratu du parte-hartze sozialaren hobekuntzak isolatze sozialaren aurrean duen garrantzia, bai eta gizartearen maila guztietan "maila bakoitzaren desabantaileri erreparatuz" ekitatez jardutearen garrantzia ere.

Osasun Publikoko Sailean zenbait estrategia landu dituzte. Estrategia horiek osasunari mesede egiten diote, osasunaren determinatzaile sozialak etenda; zehazki, mugikortasun osasungarria aipatu du. Garrantzitsua da garraio publikoko zerbitzuak bultzatzea erabilera mistoko hiri-bilbe konpaktuak diseinatzuz; izan ere, atmosferaren kutsadura murrizten da eta jarduera fisikoa sustatzen da. Osasun Publikoko sailean beste zenbait estrategia ere garatu dira, hala nola txirrindularien mugikortasuna sustatzeko eta gune publikoen irisgarritasuna hobetzeko estrategiak.

Ana Izquierdo Lejardi andereak ponentziari buruzko laburpen bat egin, eta galdera-erantzunen atalari ekin dio.

G: Aurkeztutako EAEko osasunari buruzko datuak eskuragarri al daude nonbait?

E: Bai. Askotariko datuak daude gure webgunean; horietako zenbait errolda-mailakoak eta beste zenbait udalerrri-mailakoak.

G: Azaldutakotik ondorioztatzen den gauzetako bat osasunaren izaera integrala da. Ezagutzen al duzu logika horretatik abiatuta auzoen mailan osasunaren gaiari heldu dion esperientziarik?

E: Esperientzia interesgarri bat izan zen Bartzelonako auzoetako legea. Lege horren bidez hirigintzako esku-hartze zehatzak egin ziren auzorik deprimituenetan; adibidez, zenbait esku-hartzek osasunean eragin zituzten onurak neurtu ziren.

G: LPPa berrikusteari dagokionez, garrantzi handiagoa eman beharko balitzaio osasunaren determinatzaile sozial bati, zure esperientziatik abiatuta, zein deritzozu dela garrantzitsuena?

E: Ekitatearen gaia funtsezkoa da. Hura berrikustea beharrezkoa da; izan ere, beti abiatzen da erreferentzia-eredu beretik biztanle guztientzat; hau da, gizonezko langilea den banakotik. Era berean, oinarritzakoa da mugikortasunaren auzia ere; hau da, nola erantzuten diogun mugikortasunaren auziari eta zer behar ditugun zentzu horretan. Eguneroko joan-etorrietan jarri behar da arreta; nola planteatuko dugu: ibilgailu pribatuaren bidez ala garraio publikoaren bidez?

G: Guk ondo ezagutzen ditugu Madrid Saludek egindako ikerketak, eta planteatzen duten gauzetako bat, niri mugikortasuna bezain agerikoa iruditzen ez zaidana, aisiaren, gune libreen eta azpiegituren gaia da. Elementu horiek lotuago zeuden gaueko aisiara eta ez hainbeste kultura- eta kirol-gaiei lotutako aisiara. Ez dakit bururatzen zaizun hainbesteko garrantzia ez izan arren zentzu horretan bitxia izan daitekeen beste faktorerik.

E: Bai; harreman sozialekin eta komunitatea egitearekin zerikusia duen guztia: gune berde bat izan edo komunitatea egiten den hiri barruko eremu bat izan. Nolanahi ere, hori eskala oso txiki batera jaistea da LPParentzat. HAPO batean ulertzen dut agora gisa funtzionatuko duten guneak oso garrantzitsuak izatea, hainbat jarduera eta harreman sozial egiteko balioko dutenak; halaber, gune horietan komunitateak sortuko dira, beren osasun-beharretan parte hartuko dutenak eta haiek eskatuko dituztenak.

G: Nola uztartu daiteke esaten duzun hori, adibidez, Ezkerraldeko kutsadura industrialarekin?

E: Kutsadura industrialak faktore garrantzitsua izan zen iraganean. Orain, berriz, arazoak sortzen dituen kutsadura atmosferikoa da; batez ere, ibilgailu pribatuarekiko mendekotasuna sortzen duten garraio-ohiturek eragiten dutena.

G: Nola transmititzen dira osasunari buruzko ideia horiek gobernuaren beste sail eta esparruetara? Eta guztia etxetik eta ordenagailuaren bidez egiten den aro honetan, nola hobetu ditzakegu aurrez aurreko harreman sozialak osasun sozial hori indartzeko?

E: Gure sailean Euskadiko udalerrri jasangarrien sarearen bitartez lan egiten da, eta sentsibilizazioa ere lantzen dugu udaletxeen eta interesa izan dezaketen beste erakundeen bitartez. Eta zuk esan duzuna; hau da, isolatze soziala indartzearen gaiari buruz, zera: agian, aldatzen saiatu behar den politika sozioekonomiko handien ondorioz gertatzen dira.

G: Agian, herrietara itzuli behar dugu eta hiriak alde batera utzi

E: Hirian bizi gaitezke, baina arreta auzoetan jarritz, auzo misto, oso eta zerbitzu guztiak izango dituztenetara eramango gaituen eredu batean. Gertutasun sozialeko eredu batera itzuli behar dugu.

Ana Izquierdo Lejardi andereak galderak eskertu, eta aurrerago gaiari buruz hitz egiteko aukera egongo dela azaldu du. Era berean, bigarren hizlariaren aurkezpenarekin jarraitu du. Ponentzia Lurralde-ordenazioak gure hizkuntzan, euskaraz, dituen eraginei buruzkoa da.

Unai Fernández de Betoño jauna Ingururi, Paisaje Transversali eta Aldundiari eskerrak eman dizkie Foroan parte hartzera gonbidatzeagatik, eta ondoren, hitzaldia euskaraz egin du.

Ondoren, **Jon Aguirre Such jaunak** hitzaldiaren laburpen bat egin du gaztelaniaz **Unai Fernández de Betoño jaunak** esandakoei buruz, euskaraz ez dakiten bertaratutakoek ulertzeko.

Hasteko, eskerrak eman dizkio **Unai Fernández de Betoño jaunari**. Hain gai ezezaguna eta berritzailea lurralde-antolamenduan sartzeko ahalegina eskertu dio adituari, eta, bide batez, aldarrikatu egin du horrelako gaiek lurralde-antolamenduan izan behar duten lekua; halaber, horrelako gai abangoardistek abiatzen direnean egin behar dutela bidea esan du.

Azaldu du, hasteko, Unai **euskarri fisikoaren garrantziari** buruz hitz egin duela, bai eta **geografiak zer mailatan egituratzen dituen hiriarekin zerikusia duten gauzak eta gure hiriak** eta lurraldeak. Konfigurazio horren zenbait adibide eman ditu; esaterako, Patrick Geddes aipatu du. Halaber, aipatu du nola **lurralde bateko gune bakoitza zenbait lan-motarekin lotuta dagoen, eta horrek gune bakoitzean garatzen den hirigintza-motan nola eragiten** duen. Horri dagokionez, Caro Barojak 1949an jada ezarri zuen erlazio hori euskal lurraldeen gune desberdinetan: iparraldean, baserriaren itxurako tipologia. Sakabanatua, eta etxebizitzak bereizita; erdialdean, hainbat herri txiki daude, oso sare interkonektatua osatzen dutenak; eta, hegoaldean, hiri handiagoak, elkarrengandik bereiziagoak daudenak.

Segidan, industrializazioarekin eta 40 eta 70 hamarkaden artean gertatutako **leherketa urbanoarekin eta demografikoarekin lotuta, EAEn gertatutako aldaketa demografikoak azaldu ditu**. Garai hartan, % 200eko hazkundea izan zuen biztanleriak. Fenomeno horrek biztanleriaren hazkundeari aurre egiteko **hirietan eta 60 eta 70 hamarkadetan eraikitako auzoetan** izan zuen inpaktua azaldu du, bai eta horrek guztiak nola **sortu zituen egoera elebakarra zuten eta nagusiki gaztelania-hiztunez osatutako hiriak**. Legazpiren kasuari buruz, hausnarketa zehatzago bat egin du. Azaldu du hegoaldeko gunean kontzentratutako biztanleria immigranteak eragina izan zuela udalerriaren hizkuntza-dinamiketan; iparraldeko gunean, berriz, euskararekin lotutako dinamikak mantendu ziren.

Halaber, azaldu du zenbait urte beranduago gertatu zen **suburbanizazio-prozesua**. Prozesu horretan, eredu amerikarrari jarraitu zitzaion: azpiegitura handiak, saltoki-guneak eta familia bakarreko etxebizitzak. Adierazi du prozesu horrek zer neurritan apurtu dituen komunitate irekien eta hurbiltasunezko hiri-konfigurazio tradizionalak. Horrela, azaldu du garapen berri horiek eta haien konfigurazio urbano alienatzaileek eragiten zutela, batetik, urruntze soziala, eta, bestetik, elkarriketa-gabezia. Horrekin lotuta, **azpiegitura handien eta udalerri euskaldunen segregazioan izan zuten eraginaren** gaia aipatu du, eta erakutsi du kartografia bat. Kartografia horretan udalerri euskaldunenak identifikatu ditu, eta, era berean, adierazi du azpiegitura handiek segregazio horretan duten lotura zuzena. Gai hori, nahiz eta ez den zuzenean landu, aztertu zen jada 1997ko LAGean, eta, orduan, lurralde-garapenarekin lotzen zen. Adibidetzat

aurkeztu du Bilbo Metropolitarra; eremu horretan, euskaraz hitz egiten duen jende asko dago, baina segregazioaren ondorioz gainerako biztanleen artean disolbatzen direla dirudi. Auzi hori kontuan hartu beharko litzateke LPParentzat estrategiak ezartzean.

Ondoren, EAEn euskal hiztunen kopuruak nola egin duen gora aipatu da; era berean, aipatu dira euskararen erabileran behera egin duten eremuak. Jaitsiera horren kausa honako hau da: euskaraz hitz egiten ez duen jendea udalerrietara mugitu izana, hirigintza-dinamika jakin batzuen ondorioz.

Jarraian, azaldu ditu hizlariak lurraldearen antolamenduarekin lotuta euskararen etorkizunari aurreikus diezazkiokeen bi egoera. Lehen, kuantitatiboagoa dena, euskal hiztunen kopuruari dagokio; bigarrena, kualitatiboagoa, tradizionalki euskaldunak izan diren eremuan egiten den euskararen kalitateari lotua. Zentzu horretan, planteatu da estrategiaren bat *arnasgune soziofuntzional* deiturikoetan: arnasmune horiek saretzea hirigintza- eta hizkuntza-politiken bidez. Bilbo zaharra / San Frantzisko auzoaren adibidea jarri du: auzo horretan diseinua lantzen zuten negozioak sustatu ziren beste jardura batzuen gainetik. Era berean, **Eremu Funtzionaleko (Bilbo, Getxo, Barakaldo, Santurtzi...)** udalerrri nagusien *arnasgune funtzionalen sarea indartu* daiteke; hau da, eremu horretan zerbitzuak euskaraz ematen dituzten negozioak sustatzea.

Beste zenbait gai atera dira: nola sustatu tokikoa, kohesio soziala, hirigintza komunitatean, auzoaren batasunaren kontzeptua, eremu publikoen eragina harreman sozialetan eta beste zenbait gai.

Ana Izquierdo Lejardi andereak eskertu egin dio Joni, eta **Unai Fernández de Betoño jaunari** galdetu dio hitzaldian aipatu duen kontzeptu bati buruz: osasunean, generoan eta euskararen *garapen orekatua* izateari buruz, hain zuzen. Unai erantzun dio garapen orekatuaz hitz egiten duenean ez duela esan nahi ez denik eraiki behar, kasu askotan egokia izan baitaiteke; eta, ondoren, adibide bat jarri du hori azaltzeko: Euskal Herriko iparraldeko eremuan gazte askok hirietara jo behar dute gutxieneko zerbitzuen bila (kulturalak, lanarekin lotutakoak eta abar); izan ere, haiek bizi diren lekuetan ez daude zerbitzu horiek. Horrenbestez, *garapen orekatua* kontzeptuaren bidez tokiko eskalan pentsatutako garapen bat adierazi nahi da, herritarren beharrak eta, bereziki, eskualde eta herri txikietako beharrak aseko dituen.

Ondoren, galdera-erantzunak egin dira.

Eztabaida

G: "Euskara hizkuntza gutxitu bat da eta harremanak gertukoak dira; hori dela eta, bere erabilera (badakizunean besteak ezagutzen duela hizkuntza) modu naturalean gertatzen da herri txikietan. Baina saltoki-guneetan eta ospitale handietan galdu egiten da eta ez du hainbesteko eragina."

Unai Fernández: "Dentsitatea gako-faktorea da eta mota horretako saltoki-guneetan, ziur asko, errazagoa izango da ingelesez hitz egitea euskaraz baino. Eta azpiegiturei dagokienez, egia da asko bereizi dutela gure lurraldea eta prozesu bat sortu dutela: *kontraurbanizazioa*. Prozesu

horren ondorioz, herritar asko udalerri txikiagoetara joan dira bizitzera. Horrek eragina izan du euskarari, eta existitzen diren azpiegituren ondorioz gertatu da neurri handi batean.”

Patxi Cirarda: “nik lehen aldiz entzun diot Unairi eta oraintxe konturatu naiz osasunean ekitateari buruz hitz egitean, generoa eta adina parametroekin batera hizkuntzaren parametroa ere sartu behar dudala; izan ere, hizkuntzari dagokionez ere desparekotasunak sortzen dira. Eta adierazi nahi dudana beste zerbait da Osasun Publikoko Saitetik jorratzen ditugun estrategiek euskararen erabilera sustatuko duten ereduak ere izan behar dutela.”

Ana Izquierdo Lejardi and.: “Beste galderarik?”

G: “Zentzu horretan garrantzitsua da jakitea gaur egun ospitale handietan nagusiki gaztelaniaz hitz egiten dela. Gauza zera da: zer unetan ematen den ospitaletan osasun-politika. Beste alde batetik, hasieran aipatu dut zalantzak ditudala ospitaleen kokapenak bi sailen lurralde-politiken eta antolamendu-politiken logika bati erantzuten diotenik.”

E: “Osasun zentroen banaketa biztanle-kopuruaren arabera kalkulatu zen, eta ez dira kontuan izan beste zenbait faktore, hala nola kolektibo bakoitzak osasun-zerbitzuetara sarbidea izateko beharra edo eremu bakoitzeko biztanleria. Dударik gabe, landu beharreko gaia da, baina astiro-astiro aldatzen dena.”

G: “Nire ustez, lurralde-antolamenduan eta hirigintzan hartzen diren erabakiek zuzenean eragiten dute pertsonentzat hil ala bizikoak diren gaietan. Pertsonen garapena eta bizi-kalitatea asko determinatzen dute erabaki horiek.”

Ana Izquierdo Lejardi and.: “nire ustez, foro hauetan atera da lurralde-antolamenduari buruzko diskurtso koherente bat. Ez dakit norbaitek nahi dion esandakoari zerbait gehitu.”

G: “Gentrifikazio-prozesuetaz hitz egiten hasi da zenbait auzotan, hala nola Miribillan. Nola egin diezaiokegu aurre horri?”

E: “Hori beti da zaila. Nik ez daukat erantzuna, baina uste dut beharrezkoa dela eremu jakin batzuentzako hirigintza-politikak egitea, jada badagoen biztanleria ez dadin mugitu. ”

G: “Bai, eta adibideetatik ikastea. Badira hainbat adibide, hala nola Bartzelona, non auzoak turistentzako eginak dauden.”

G: “Bai, baina adibidez, Bilboko San Frantzisko auzoak hobera egin du gentrifikazio-prozesurik gabe.”

G: “Bai, nik diodana zera da: kontuan izan beharreko gaia dela, prozesu horren kudeaketa ona egiteko.”

G: “Gauza bera gertatzen da kostaldeko eremuetan. Esaterako, Pasaian baimendu zen eremu bat luxuzko familia bakarrek etxebizitzak eraikitzeke, eta, horren ondorioz, biztanleria autoktonoaren zati batek lekualdatu egin behar izan du. Esaterako, etxebizitzetan nahasketa handiagoa izan beharko litzateke, BOEak hobeto integratuta egon beharko lukete gainerako etxebizitzekin. Gaia konplexua da.”

Ana Izquierdo Lejardi andereak galdetu du ea norbaitek zerbait gehitu nahi duen eta,

ondoren, saioa itxi du.